

editoriala

Oso latza izan da. Jakin badakigu, hilabete hauek, bizi ari garen guztia bizi izan dugun eta bizi izango duguna momentu zailenatariko bat izan dela eta honi modu kolektiboan aurre egi beharko diogu. Konfinamenduarekin bat ez jakintasuna, beldurra, kezka, eta hainbat zailtasun izan ditugu arlo pribatuan zein publikoan ere bizi dugu. Guztiok egoera zailak bizi ditugu; gaixotasuna, senide eta lagunak galtzea, maite ditugunetatik banatuta egotea, lan zailtasunak, kezka urrun daudenengatik horietako asko ulertezin urrun gainera, ERTEak, kaleratzeak, EREak, gure osasuna bermatuta egon gabe lanera joan behar ... Eta hala ere, sufrimendu guzti honekin, gure sindikatuak aurrera egiteko gaitasuna izan du zailtasun guztien gaitetik eta sindikalgintza egiten jarraitu dugu enpresatan bai, baina baita kaleetan, sare sozialetan, balkoietatik eta posiblea izan dugun edozein esparrutik.

ESK sindikatu txikia da, baliabide gutxirekin, baina zerbait soberan baldin badugu ilusioa eta beste jendar-te bat eraikitzeko gogoak dira. Beste gizarte bat non denontzako lekua izango den; feminista, ekologista, antikapitalista, antifaxista, antirazista.... Beti esan ohi dugu gure sindikatuaz harro gaudela, ESK sindikatuak duen onena, dudarik gabe, gure jendea dela, sindikatua osatzen duzuen guztiok; afiliazioa, bertan lan egiten duzuenok, delekatuak... Eta hau horrela izanda ere momentu hauetan zuetaz inoiz baino harroago sentitu gara. Eskerrik asko. Eskerrik beroena Koronabirusaren garai hauetan sindikatua aurrera ateratzea posiblea egin duzuen guztioi, sindikatuko langileei zeintzuk atsedenek gabe zuen etxeetatik aritu zareten guztioi, delikatuak, zerbitzu esentzialen parte izan zaretenoi, etxean geratu zareten guztioi zaintza lanak egiten, zaintza sareetan parte hartu duzuen guztioi, txaloak eta aldarrikapenak zuen leiho eta balkoietara eraman duzuenoi ... guztioi, bihotzez, esker mile.

COVID-19aren pandemia oraindik ez da bukatu eta osasun egoeragatik kezka handi izan arren badago oraindik gehiago kezkatzen gaituen pandemia oraindik ere bere ondorioa eta efektua kriminalak gaitetik kentzea ez dugulako lortu. Jasaten dugun pandemia hori hain zuzen ere are zailago bilakatu du COVID-arena kudeatzea eta pandemia horrek badu izena: kapitalismoa. Bai, kapitalismoa, hori da dudarik gabe gure pandemia. Hala ere pandemia honek badu txertorik; klase elkartasuna eta elkarlana dira honen kontrako txertoa. Eta noski ez da lan makala izango, bide luze eta gogorra dugu aurretik baina naiz eta guk ongi jakin gure pandemia kapitalismoa oso argi dugu ere txertoa zuek zaretela, astindu dezagun beraz pandemia gaitetik.

Versión en castellano:



<https://labur.eus/2j2x4>